

Dantzari, sortzaile

“Pensaviento” (dantza bertikala) eta “La Lola baila”, ikuskizunak izan dira ni eta arte eszeniko familiarren arteko zubi.



Pensaviento



La lola balla

Hezkuntza

Horrez gain, duela 8 urte dantza irakaskuntzan aritzeak txikienekin kontaktuan jarri nau. Esperientzia honek, arte eszeniko familiarrekin lotura estua du. Haur eta gazteek dantzarekiko duten harremana ikuskatzeko balio izan dit, zer espero duten honetaz edota zer bilatzen duten beronen praktikaz. Esan gabe doa, euren jakinminak, motibazioak, kezkak eta arazoak ere konpartitzen direla ikasgeletan eta hauek, giltzak izan behar direla eurei zuzendutako sorkuntzak formulatzeko orduan.

Amatasuna

2015 ean ama izan naiz bizipen hau ere inpultso bat izan zen Kimu deialdira aurkezteko. Momentu horretan nire dantzari/ irakasle lana eta amatasuna uztartzen hasia nintzen. Era berean, sortzaile ikuspuntutik interes berri batzuk agertu zitzaizkidan; arteak txikienei zer eman diezaiokeen edota dantza nola formulatu haurren begiradaren aurrean bezalako galderak otu zitzaizkidan.

SUR UN PETIT NUAGE - Pessac -

“Les fusées”. Cie La Boîte à Sel, Cécile Garnavault.

“Bartleby”. Bob's Theatre.

“Play”. Teatro delle Briciole (Italie)

“L'Habitant de l'escalier”. Maesta Theatre. Benjamin Ducroq.

“Mystery magnet.” Miet Warlop

FETEN - Xixon -

Pajaro carpintero. Instalazioa.

Espacio Petite Caravane.

“Vincles”. Circ Bover

“El viaje redondo”. Teatro de Ocasión.

“Vuelos”. Aracaladanza.

“Igloo”. Escena Merikaque.

“Maravilla en el pasi de las miserias.” Atikus Teatro.

“En casa”. Caramuxo teatro.

“Tripula”. Ferres Brothers i Cia.

“El circo de la luna”. Teatro paraíso.

“A la luna”. Voil Productions.

“Bhrava”. L' Anime teatro visual.

“Las expertas”. Compañía Albadulake.

“De flor en flor”. Cia de danza Fernando Hurtado.

“Amour”. Marie de Jongh..

SWOP! - Roskilde -

"Sensescape". Dalija Acin Thelander. Serbia.

"Friends in the library". Plan D. Nederland.

"True confusion". ZeBU & Teater Minsk.

"Fly Trap". Sparrow Dance. Denmark.

"Chalk about". Curious Seeds. Scotland.

"Declaration of love". fABULEUS & Nbprojects. Belgium

"Dear humans." The touring company of Dansstationen/ Carrasco Dance. Sweden

"Into the heat." The 100 Hands and Aaben Dans. The Netherlands

"Motosikai". Race Horse Company. Finland

Londres - Hofesh Shecter. The barbarians trilogiaren repertorioa landu da. The good, the bad and the ugly piezen zatiak. Beroketa inprobisazio bidez landu da, hofeshen lenguaia hurbiltzeko beharrezko den gorputz mota prestatuz. Ondoren, dantzari desberdinek materiala azaldu eta gainbegiratu dute. Interesgarriena : Lengoiaia espezifiko bat, kasu honetan konpainiarena, nola transmititzen duten eta nola eraiki fisikaltate egoera hori. Irudien erabilera garrantzitsua.

> [BIDEOA](#)

Barcelona - Peeping Tom : Dantza antzerki konpainia belga. Konpainiaren sorkuntza prozesua nolakoa den eta bere baitan erabiltzen dituen tresnak eta dinamikak elkarbanatu dira. Fisikaltate birtuosoaren bilaketa, ezsenaratzeko emozioen kudeaketa eta kontzeptualizazioari buruzko gogoetak egon dira besteak beste, beti ere sorkuntza osteko konposizio ariketa ardatz izanik. Inprobisazio gidatuen bidez landu dira alor desberdinak.

> [BIDEOA](#)

Atal honetan Swop jaialdi barruan izandako seminarioan jasotako informazioa.

SEMINARIOA : ART OR/AND LEARNING? SWOP

Sister Academy. (Suedia) The school as a sensuous society

Arte performatiboak eta hezkuntzaren garapena topatzen diren bidegurutzean daude.

Bilaketa, pedagogia, arte performatiboak eta aktibismoa dira euren oinarriak.

Plataforma internazionala da.

Sensualitatea, edertasuna eta poesia balore nagusiak diren bizitza aldarrikatzen dute.

Konplexua da.

Puedes decir qué es lo que está dando forma a una sociedad fijándote en cuál es el edificio más alto. Cuando te acercas a una ciudad medieval, la catedral es lo más alto que hay. Cuando te acercas a una ciudad del siglo XVIII, es el palacio político el más alto. Y cuando te acercas a una ciudad moderna, los edificios más altos son los de oficinas, los centros de la vida económica.

El poder del Mito.

Joseph Campell

Orain arte mundua dominatu dute boterea izanez erlijioak, politikak eta ekonomiak. Hurrengo korrontea, ARTEAK zuzendutako mundua dela iragartzen dute.

Sisters Academy mundu horren baitako eskola bat da.

Bi lan esparru dituzte.

Boterea berreskuratu ; irakaskuntza eredu berriak. Performatibitatek abiatuz.

Eskolaratzea ; instalazio batetan sartu eta irakasle, artista zein dispositibo artistikoekin elkartruketik ikasi.

INTERAKZIOA VS. INMERSIOA

Artean murgiltzeko apostua egiten dute. Inmersio kontzeptua 2dimentsiotik tik 3dimentsiora pasatuz.

METODO PERFORMATIBOAK

Interbentzioa + inmersioa

Laboratorioa + esperimentazioa

NI POETIKOA

Irakasleek izen poetiko dute.

Nire desioa ikasteko + nire izate osoa= hezkuntza kontextuan ezinbestekoak dira.

Ni poetikoak , potentzial infinitua du.

Choreographical considerations in a pedagogic perspective. (Dinamarca) [Laura Navndrup](#)

Haurra eta ni. Bakarka.

Egunero lan artistikoa.

Egunero elkarriketak.

Zer nahi dut haurrarengandik?

Lo banal y lo profano.

Paideia (hezkuntza) vs. Ludus (jolas)

Proposamenak

Mimetizazioa --> bideoa> Jantzi pertsona bat izango ez bazina bezala.

Objektuak --> objektura transmititu nire mugimendua.

Zer nahi dugu jakin elkarrengandik? Galderak

" The adults imagination of the child's imagination" (Taussig 2003: 461)

Gizarte sekretua azaleratzen da.

TotalDans proiektua (Dinamarka). [Ellen Kilsgaard](#)

Ez dago azalpenik. Mimetizazio bidez burutzen da ikuskizuna.

Kontakturako gaitasuna oso txikitatik dugu.

Ulertzen dugu energia baxua edo indartsua bada.

Aipamenak

> Brain, Attachment, Personality: An Introduction to Neuroaffective Development. Susane Hart.

> Nervious system. Daniel Stearn.

Zentzumen guztiekin transmititzeko gaitasuna, ez soilik ikusmenarekin jaso dezakeguna.

Impresioak ematen dituzte, ez soilik irudiak.

Ez dago gairik.

Kalitateak

Intentsitateak

Espazioa

Leku espezifiko asko sortzen dira

360º

Kontrolik ez

Nola nago, zer ari da gertatzen

Barne irudien bila

Gu ez gara umeak, zubiak gara.

Eurekin konektatzen gara baina ez gara haur bihurtzen.

Ez dago adostua zer gertatuko den... honek aktibatzen ditu:

Jakinmina

Atentzioa

Irakasleetatik aske; beldurtuta badaude ez daude prest ikasteko

Egoera fisikoek gure mugikotasun mentalen eragina dute. Egoera berrietan jartzeak ikaspen bat dakar.

Fabuleus kolektiboa (Belgika). FABULEUS

15-22 adinekoak taula gainean.

Batez ere bira nazionalak egiten dituzte.

4 edo 5 produkzio urtero.

Duela 20 urte hasi ziren.

Profesionalak gazteekin lan egiten dute.

Emitza artistiko kalitatezkoa + Helburu pedagogiko sozialak --> dute helburu.

Artisten aukeraketa : Gazteak ieta gaitasun interpretatiboak izateaz gain konpromisua, disziplina eta heldutasun puntu bat eskatzen zaie. Oporretan entsaioak etab.

KIMU programa baitan urtean zehar agertu diren izen batzuk, bildutako esanguratsuena.
Konpainiak, artistak, etab.

ARTISTAK

Ruben Reniers - Koreografia- (Alemania)

Barbara Steinitz - Ilustrazioa- . (Alemania)

Vanesa Cook. - Dantza bertikala-

Paulo Lameiro.- Musika. (Portugal)

Maria Campos

Carla Rovira . Most of all you've got to hide from the chicks. Somnis de teatre.

KONPAINIAK

Mons dansa i educacio. (Katalunia)

Roselad Musical

4 Hoog. Wanika. (Belgium.)

Date Danza (Granada).

Cia Maduixa (Valencia)

La rumbe danza (Madrid)

14:20. - Magie Nouvelle. (Frantzia)

Hand made Theatre. (Bartzelona)

Logela Multimedia.

Gorakada.

Robinson konpainia.

BESTE JAIALDI BATZUK

Momix. (Frantzia)

Mostra d'Igualada. (Katalunia)

El mes petit de tots. (Katalunia)

Salto! (Suedia)

Finfa. (Portugaleko txontxongilo jaialdia)..

> Non daude adin mugak?

Kimu baitan bizitako esperientziatik galdera garrantzitsuena hauxe izan da niretzat.

Argi dago, proposamen artistiko batzuk helduei zuzendutakoak direla formatu eta eduki aldetik eta era berean beste batzuk adin txikiei begira sortuak dira.

Hala ere, bada hartzaile guztiak biltzen dituen unibertso bat non adina ezaugarri bat besterik ez den, muga orde. Lan eremu hibrido hori prisma berri bat izan liteke sortzeko momentuan. Edota sortutakoa erakusteko orduan.

Pixar edota Tim Burton bezalako adibideak datozkit gogora zentzu honetan.

> Abstrakzioa eta Narrazioa dantzan.

Kimu aurretik ere banebilen galdera honekin.

Umeen adimenak duen konkrezio beharra zalantzan jarri nahi nuke. Iruditzen zait, ikaragarritzko gaitasuna dutela bidaiatzeko. Egia da, amu batzuk beharrezkoak direla, ideiak, sentimentuak, edota irudiak lurreratzeko. Baina ez dakit askotan tonu esplizituegiak erabiltzen ez ditugun. Erantzun garbirik gabeko galderak airean uzteko beldurrez edo. Honen adierazgarri izan liteke Aracaladanzak egiten duen lana, non baden gaia eta badiren zeinu konkretuak, baina ez dago istoriarik. Dantzak tonu hipnotiko batean biltzen du ikuslea, oso zaindutako estetika baten eskutik.

Ordea, narratibitateak ere badu bere xarma, ondo kudeaturik badago. Honek sor lezakeen marko ezseniko eta mapa kontzeptuala oinarri harturik bidaia poetikora joatea ere ederra dela uste dut. Honen adibidetzat aipatu, Peeping Tom en ikastaroan zuzendariak aitortu zigun euren dogma bat; hasieran, ez dakite zein den gaia, nortzuk diren, nora doazen eta zer den gertatuko dena, baina badakite non dauden, zein espazio fisikotan gauzatuko den sorkuntza. Espazio hauek oso toki konkretuak izan ohi dira.

Narrazioa eta Abstrakzioa, bien arteko balantza, sortze unean presente dudana tirabira bat da. Are gehiago haurrak adimenak presente badira.

> Galderak vs. diskurtso moralak.

Ikuskizun batzuen moralismoari ez diot xarmarik aurkitzen. Arteak ez gaitu adoktrinatu behar, galderak sortu behar dizkigu, hunkitu egin behar gaitu, haserretu, aspertu, xixatu edota maitemindu. Barrenak mugitzearen kontrakoa dela deritzot lasai eta obedientzia eskatzeari. Adin txikikoei zuzendutako ikuskizun askotan irudipen hori izan dut, haurrei pentsatu eta egin behar dutena esaten ari direla.

Hau dena oso erraza da kanpotik ikustea, gero sortze prozesuetan zaila izaten da gauza guztiekin fin aritzea.

> Genero Rolak

Haur eta gazteen arte eszenikoetan neska eta mutil rola erabat azpimarratzen dira, batez ere adin txikienetan. Betiko estigmatizazio eta klitxeek genero binarioa bermatzen dute, txikien aniztasunaren aurrean itsu. Lehen bait lehen deseraiki behar dira modelo zaharkitu horiek, belaunaldi berriek euren izaera ahal eta libreen garatu dezaten.

* Azken bi puntuak, autokritika gisa idazten ditut. Kritika ez dago urkoan, neugandik hasten da. Aurrerantzean kontuan izan nahi ditudan apunteak dira.


SORKUNTZA

Kimu hasieran Txorien gaia nuen abiapuntutzat.
Baita dantza bertikaleko solo bat ere, erreferente gisa.

Momentu honetan proiektuaren hasieran nago; dramaturgia, kontzeptualizazio eta bilaketa fasean. Gai nagusia SALTO- a da, salto egitea, hutsari aurre egiteko borondatezko akzioa gisa ulerturik.

Umeek salto egiten duten lehen aldian honek duen esanahia, salto mota desberdinak edota bizitzan beste biderik ez eta salto egitea aukera bakarra den momentuen inguruko gogoetak dira esperimentu berri honen oinarriak.

> AIR 10315. Proiektuaren irudi batzuk...



ESTRUKTURA



